

SAN BLAS FERIA. Eguraldia lagun inoz baino jentetza haundiagoa batu zan, atzo Abadiñon



INIGO AZKONA

JENTE MORDOA. Goizean goiz hurreratu ziranak izan eben ganadu, tresneria eta nekazari produktuen azoka nasai ikusteko aukera. Goizak aurrera egin ahala, gero eta gaxagoa zan ezer ikustea. Izan be, azken urteotan baino jentetza handiagoa batu zan atzo, Abadiñon.

San Blas feria arrakastatsua

Zapatua izanik eta eguraldia lagun, Abadiño txiki geratu zan joandako jentetza hartzeko



INIGO AZKONA

SAN BLAS OPILAK. Tradizioari jarraitu beharra dagoalako, edo benetan gozoa dalako, kontua da opilak erruz saldu zirala.



INIGO AZKONA

HAMAIKETAKOA. Horrenbeste buelta emonda, horrenbeste jan gozo ikusita, derrigor egin behar geldialditxo, zeozer jateko.

Aitziber Basauri | **ABADIÑO**

Eguraldi ederra lagun izan eban, atzo, San Blas egunak. Halan, aurton zapatua izan dala kontuan hartuta, inoiz baino jente gehiago joan zan Ganadu, Tresneria eta Nekazal Produktuen Azoka ikustera. Goizean goiz heldutakoek izan eben feriaz nasai asko gozatzeko aukera. Izan be, goizak aurrera egin ahala, ezer ikusterik ez egoala eta kexu ziran hainbat bisitari.

Urteroko arazoari aurre egin guran, Astola, Muntzaratz, Matiena eta Arrankurri inguruan egokitu dira aurton aparkalekuak. Halandabe, 09:30etik aurrera, aparkaleku gehienak beteta egozan, Udaltzaingoak azaldutakoaren arabera. Goiztiarrak izan ziran gehienak, izan be, 09:30ak inguruan heldu ziran bisitari gehienak. Ostean, goizak aurrera egin ahala aldika auto asko pilatu arren, apurka-apurka hurreratu ziran bisitariak. Auto ilarak be izan ziran, Durangoko Montorreta auzoan, Elorriotik Abadiñora bidean eta Astolan.

Salmentak ez dira jentetzagaz bat etorri

Nekazal produktuen azokak 80 bat ekoizle batu zituan Abadiñon. Txakolina, sagardoa, ortuariak, gazta, ogia, opilak, sendabelarrak... izan ziran nagusi.

Saltzaileen ustez, aurton zapatua jauzi izanak eta eguradia lagun, jentetza itzela batu zan, atzo Abadiñon. Halandabe, «salamentak zelan halakoak» izan dira, azken 8 urteotan euskal pastela saltzera hurreratu zan lezamarrak. «Jente asko etorri arren ez da asko saldu. Aitatu, baina, asko eguna pasatzera etorten dala San Blas egunean. Feria ikusi, taloa txorizoagaz jan eta goiza pasatzera».

Goiza «sano ondo» joan zala adierazo eban, beste alde batek, baserriko ogia eta ardi gazta saltzen jardundako izurtzarrik. «Eguraldiak eta zapatua izateak izan dau eraginik, halandabe, guk ingurukoak izakeran, beste urteetan beste saldu dogu».

Ortuariak saltzeko garaia ez dala eta salmenta gehiegirik izan ez zala, nabarmendu eban Urduliztik heldutako ekoizle batek. «Badira 5-6 urte San Blas feriara etorri garana, eta egia da aurton jente piloa batu dana, zapatua dalako», ziurtatu eban.

Arbaso Alkarteak antolatutako V. Artisau Erakusketan, bestalde, 18 bat postu izan ziran. Berton egurrez, keramikaz edota narruz eginiko artisau lanak izan ziran erakusgai. Era berean, artisauak euren lana zelan egiten daben ikusterik be izan eben Abadiñora heldutakoek. IX. Abelburu Erakusketak be jente ugari erakarri eban.



INIGO AZKONA

ORTUARIAK. Danterik saldu zan atzo, Abadiñon be egon zan. Argazkian, ortuko produkturik

Taloe antxinako eran

Ferialekuan talo eta txorizo usaina izan zan nagusi. Feria ikusi bitartean, tarte bat egin eta taloa jatea ohitura bihurtu da. Azken 13 urteotan Seguratik etorten dira Abadiñora taloak egitera. Antxinako eran, egurragaz eta suagaz egiten dabe taloa txistorra, gazta, bakan edota txokolategaz. Ganera, «mehea egiten ahalegintzen gara, askotan horren kexu izaten dira-eta. Hori eskertu egiten deuskue», inoan Josepa Albizuk, suari bistarik kendu barik.

Egurdi partean emon jakezan sariak ortuari, abere eta basogintza sailetan nagusi izan ziran ekoizleei. Ostean, herri kirolak izan ziran probalekuan. Bertan, Abadiñoko harrijasotzaile eskolan jarduten daben erakustaldia izan zan. Ostean, barriz, aizkolari saioa izan zan. Kana betko enborra ebagi behar eben.

Jabier Uriarte alkateak «sano ondo» baloratu eban aurtongo San Blas feria. «Goiza oso ondo joan da. Inoiz baino jente gehie-